



Babesteko aukerak

Akademy
Qt Contributor Summit
Akademy-es

Bilbao
2013ko uztailaren 11tik 19ra

Zer da Akademy?



Akademy Software Librearen **inguruko munduko komunitate handienetakoa** den KDE-ren urteroko goi-bilera da.

Akademy-k bi eguneko konferentzia eskaintzen du KDE-ren azken garapenei buruzko aurkezpenekin, eta jarraian beste bost egun kodeketa saio eta tailerrekin. Mahaigain ingurunearen eta plataformaren lankide tekniko giltzarriak, Libre eta Kode Irekiaren industriako liderrak, funtzionarioak, eta hezitzaileak etorriko dira, besteak beste.


Software Librearen egutegian galdu ezin daiteken ekimena da. Proiektuen arteko

lankidetzaren sustatu eta kode irekiko erabiltzaile-interfaze teknologietan garapen komuna egiteko aukerarik hoberenetakoa da. Gainera, **Akademy-k zeregin nagusia du KDE komunitatea eraikitzen eta sostengatzen.** KDErekin laguntzen dutenentzat abagune berezia da, beraiekin birtualki lankidetzan ibili diren pertsonekin aurrez aurre aurkitzeko aukera ematen baitie.

KDE-ri lotutako gaiak buruz eztabaidatzeko eta **mahaigainerako, tabletentzako edo gailu mugikorrentzako** erabiltzaile-interfaze proiektu berritzaileetan elkarrekin lan egiteko parada ematen du. Akademy-k Qt teknologian ere arreta handia jarri izan du aurreko urteetan, Qt ikastaroak eta ziurtatze saioak eskainiz, eta VideoLan-en tankerako Qt-rekin lotutako proiektuak ere beregan hartu izan ditu.

Mesedez ikusi <http://akademy.kde.org> informazio gehiago lortzeko.

KDEri buruz



Erabiltzaileei zuzendutako Software Libre sortu eta mantentzen dituen komunitate internazionala da KDE. KDEren produktuen artean badira Linux eta UNIX plataformentzako **erabiltzaile-interfaze modernoak** eta ehunka software; web aplikazioak, bulegoko produkzio

tresnak, multimedia, aisialdia, hezkuntza, grafikoak, groupware eta software garapena, eta antzeko kategoriatan koka daitezkeenak. Garapen Plataformak KDE aplikazioak garatu eta mantentzeko tresnak eta liburutegiak hornitzen ditu.

KDE softwarea **ehunka hizkuntzetara itzuli da** eta gaur egungo irisgarritasun arauak betetzeko diseinatu da. KDEren aplikazio osoek **Linux, BSD, Solaris, Windows eta Mac OS X** sistematan zuzenean ibiltzen dira.

Mesedez ikusi <http://kde.org> informazio gehiago lortzeko.

Qt Contributor Summit 2013



**Code less.
Create more.
Deploy everywhere.**

Qt Contributors Summit (QtCS) Qt Proiektuan laguntzen dutenenon bilgune garrantzitsua da. Qt Open Governance-ren 2011. urtean plazaratu zenetik hasita, QtCS2013 QtCS burutzen den hirugarren aldia izango da. Ekitaldia lan egiteko eta etorkizunerako plangintza egiteko batzar praktikoa da, dohainik da eta partehartzaileak gonbidapen bidez sartzen dira.

Aurten, KDE komunitateak QtCS Akademyrekin batera burutzeko gonbitea egin du, Bi proiektuen hobekuntzan laguntzeko. **400 garatzaile baino gehiagok** parte hartuko dute ekitaldi bateratu honetan, KDE eta Qt proiektuen mantentzaile nagusiak eta laguntzaile nagusiak barne. Informatikaren arlo desberdinak jorratuko dira, Qtren eta KDEren liburutegi nagusitik hasita, **ehunka erabiltzailek** erabiltzen dituzten aplikazio ospetsura arte. Lan giroa oso emankorra izango da, elkarren indarrak batuko dira, ezagupenen trukaketa bat emango da eta laguntzaile berriak ezagutuko dira.

Bateratze honi esker, KDEk eta Qt proiektuak beraien Open Governancerako joera handituko dute. Bi batzerrak toki berean eta une berean burutzeak, **elkarrekintza, ezagutzen transferentzia eta garapen teknologikoa** sustatuko ditu

Akademy-es

Akademy-es KDE **laguntzaileen eta erabiltzaileen Espainiako batzarra** da. Ekitaldian zehar hitzaldiak, tailerrak eta izaera sozialagoa duten ekintzak izango dira, zeinekin hurrengo helburuak lortu nahi diren:

-KDE garatzaileak elkarrekin harremanetan jarri, lanean aritzen diren proiektuei buruz hitz egin dezaten eta kodea, esperientziak eta ezagutzak partekatu ditzaten.

-KDE proiektua profil teknikoa ez duten pertsoneri ezagutarazi.

-KDE teknologien barnealdea garatzaile berrientzat zein KDE hobeto ezagutu nahi duten erabiltzaileentzat dibulgatu

-Helburu nagusia guztiok gozatzea Software Askeari eta KDEri buruz gehiago ikasten.

Itsas eta e-ghost

Itsas eta eghost **UPV/EHU** eta **Deustuko Unibertsitateko software aske taldeak** dira, hurrenez hurren.

Euskadiko unibertsitate munduan software, teknologia eta ezagutza askeen sustapena dute helburu nagusi.

Helburua lortzeko, hitzaldiak, konferentziak, topaketak eta ikastaroak antolatzen dituzte, software askearen abantailak jakinarazteko eta erabiltzaile kopurua handitzeko



Akademy 2013ren kokapena

Akademy 2013 **Bilbon** burutuko da, **Euskal Herriko** hiriburu ekonomikoa.

Bere sukaldaritza eta jende adiskidetsuagatik famatua den Bilbok Software Libreko hainbat ekitaldi ere barne hartu izan ditu. Hamar urtez baino luzarago, bertako aktibistek garatzaile bilkurak eta Akademy España-ren tankerako FLOSS ekitaldiak antolatzen ibili dira. Teknologia Libre eta Irekien sustapenean lanean dabilen erakunde sare indartsu bat bada: **Software Librean oinarrituz lanean dabilen 36 konpainia txiki biltzen dituen elkarte** (**ESLE; Euskadiko Software Libreko Enpresen Elkarte**), Kubuntu/Ubuntu darabilen **unibertsitate publikoa (UPV/EHU; Euskal Herriko Unibertsitatea)**, eta Software Librearen aldeko legeak ezartzen hasi diren zenbait **agintari publiko**.

ITSAS eta e-ghost, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate nagusietako FLOSS taldeetako antolatzaileei esker Akademy 2013 Bilboko bi biltoki entzutetsutan burutuko da, Bizkaia Aretoa eta UPV/EHUren parte den Ingeniaritza Eskolan.



Guggenheim Bilbao Museoa



Bilboko Ingeniaritza Eskola



Bizkaia Aretoa



Euskal Herriko ikuspegi ederra



Pintxoak

Akademy 2013 babestu ezazue



300 pertsonatik gora etortzea espero dugu -- Software Librearen profesional eta zaleak, garatzaileak, itzultzaileak, diseinatzaileak, eta bestelako komunitateko kideak, konpainien ordezkariek, gobernuko agintariak, kazetariak, eta mundu osoko hezitzaileak. Ekimen hau babestuz funtsezko publikotasuna eta mundu osoko goi mailako teknikariei heltzea lortuko duzue.

Ekimenak IKT industriarako interesgarri diren zenbait alor garrantzitsuetako aurkezpenak izango ditu, mahaigain garapena, aplikazio garapena, gailu mugikor, txertatu eta haririk gabekoentzako interfazeak, multimedia, arte digitala, eta Internet eta web teknologiak. KDE komunitateak arlo hauetan guztietan historia egin du berrikuntzak ekarriz. Babesletzat, sormen ingurugiro honetan parte hartzeko aukera izango duzue eta partaideentzat ikusgai izango zarete.

Akademy ez da teknologiaz eztabaidatzeko leku emankor bat soilik. Elkarri ezagutarazteko eta lagunak egiteko aukera ere eskaintzen du. Ekimen sozialok gure babesleei esker dira posible osoki. Ekimen sozialotan, jendeak urtean zehar talde birtualak eta KDE komunitatea sutsu eta arrakastatsu mantenduko dituen loturak osatzen ditu. Giro ireki eta sortzaile batetan jende argi asko biltzeko, gogor lan egiteko, berehalako erronkak ebazteko eta etorkizunerako ideia berriak eta ebazpenak bururatzeko ekimena da Akademy. Babesleak Akademy-k arrakasta lor dezan ezinbestekoak dira eta etortzen direnak babesleen eskuzabaltasuna igarri eta eskertzen dute.

Akademy-ren babesletzat hurrengo onurak dituzue:

KDE eta QT lankide gakoak ezagutu, bertsio nagusiko eta txikien mantentzaileak, eta munduko Erabiltzaile-Interfaze teknologia plataforma aurreratuenetako baten erabiltzaileak.

Primerako talentuak kontratatu! KDE-k munduko garatzaile onenetarikoak erakartzen ditu, graduatu berri diren unibertsitate ikasleak eta berritzaile diren lider teknikoak. Babesleek kontratatuzeko edo garatzaileen artean onarpena irabazteko aukera.

Beste partaide liderrak ezagutu. KDE komunitateaz gain, beste Software Libre proiektu eta konpainiek Akademy-n parte hartzen dute.

Inspirazioa aurkitu. Akademy-k inguru ezin hobea da produktu berrien inguruan iritziak jasotzeko, eta ideia berriak bururatzeko.

Eragin datozen produktuentzako planetan. Akademy-n KDE proiektuak hurrengo hilabeteetan zehar jarraituko den norabidea ezartzen du. Plan berri horiei buruz jakiten lehenak izateko zuen aukera da hau, eta eztabaidatuz beraietan eragina izateko.

Ikusgai izan. Ekimena babesteak sustapen aukera baliotsuak ematen dizue, ageriko publizitatea, hitzaldi nabarmenduak, eta prentsa estaldura internazionala kasu.

Software Libreko teknologiak bultzatu. Akademy-ko hackfest-etan aplikazio berrien garapena eta kodetze saio intentsiboak babesten dituzue.

Software Libre lagundu. Ekimenaren babesle agertuko zarete eta honek ekartzen duen publizitateaz gozatu. Neurri berean garrantzitsu, Software Libre eta Irekia, KDE proiektua, eta atzean dituen idealak lagunduko dituzue.

KDE Komunitatearen parte izan zaitetzte. KDE munduko Software Libre eta Irekiko komunitate handienetarikoa da. Dinamikoa, jostazalea, kooperatiboa, konprometitua, sortzailea eta saiatua da. KDEri lotutako jendearentzat, komunitate hitzaren adierazpen gorena da. KDE horren eraginkor egiten duen salda magikora zuzenean iritsi ahalko zarete.

Batu gurekin ekimen hau arrakastatsua izan dadin!

Babeste mailak

	Platinokoa € 25,000	Urrezkoa € 12,500	Zilarrezkoa € 5,000	Brontzekoa € 2,000	Babeslea € 1,000
Irekiera bileran eskerrak ematea	X				
Mahaia erakustokian	X	X	X	X	
Zuen pankarta harrera-lekuan	X	X	X		
Zuen pankarta bi konferentzia gelatan	X	X			
Zuen pankarta hack lab-ean	X				
Logotipoa konferentziaren txaparen aurrean	X	X	X		
Logotipoa txapa batetan konferentziaren egitarauarekin batera	X				
Logotipoa konferentziaren webgunearen azalean		X	X		
Konferentzia babesteari buruzko baterako prentsa komunikatu baterako aukera	X	X	X	X	
Konpainiaren logotipoa eta deskribapena webgunearen babesleentzako atalean	150 hitzak	100 hitzak	75 hitzak	50 hitzak	50 hitzak
Konferentzian sustapen materiala banatzeko aukera	X	X	X	X	
Babeslearen aurkezpeneko tartea (3 minutuko hitzaldi azkarra)	X	X	X	X	X
Elkar ezagutzeko gosari edo bazkaria KDE batzordearekin	X	X	X	X	X

Pakete konbinatuak Akademy eta Qt contributor Summit 2013rako (azken prezioak)

Paketeak Akademyren babesle izatearen abantailerei hurrengoak gehitzen QtCSren hurrengoak gehitzen dizkio	Platinokoa € 35,000	Urrezkoa € 17,500	Zilarrezkoa € 7,000	Brontzekoa € 3,000
Logotipoa eta deskribapena QtCSren webgunean	X	X	X	X
Logotipoa astelehenero ekitaldian	X	X	X	X
Logotipoa gela nagusian	X	X	X	
Irekiera bileran eskerrak ematea	X	X	X	X
2 minutuko aurkezpena irekiera bileran	X			
2 minutuko aurkezpena lehen goizean zehar		X		
Astelehen gaueko jaiaren eskerrak ematea	X			
Logotipoa akreditazioetan	X			
Gonbidapen kopurua	8	4	2	1

Aukera gehigarriak (pakete baten parte izan daitezke ala banaka adostuak)

Konferentzia ofizialaren harreraren babesle (gastuak zeuek ordainduz)	
Festa edo bidaiaren babesle (gastuak zeuek ordainduz)	
Kafea hartzeko atsedena diaren babesle	
Bazkariaren babesle (QtCs)	
QtCSren astelehenero jaiaren babesle	

Neurrira eginiko paketea

Zerrendatu diren babeste paketeetatik bat ere ez badator bat zure konpainiaren beharrekin edo aurrekontuarekin, beste babeste pakete bat neurrira egin daiteke.

Informazio gehiago: Babesleari buruz eztabaidatu ala informazio gehiago jaso nahi baduzu, mesedez kontakta iezaguzu:

* Estatu mailan: Dani Gutiérrez, Akademy-2013 bertako koordinatzailea eta KDE Españako batzordekidea, danitxu@fsfe.org, tel. +34 665 730240

* Nazioarteko mailan: Claudia Rauch, Business Manager, KDE e.V., tel +49 30

2023 73050, akademy-sponsoring@kde.org

Komunikabide kidetuak

Berrien argitaratzaileak - paperezkoak zein sarekoak - ongietorriak dira komunikabide kidetu izateko, partaideek izena emateko orrira gidatzen duen estaldura egokia, konferentziaz geroko estaldura edo Akademy-a burutzen den bitartean unean uneko eguneraketak emateko.

Komunikabide kidetuek beren konpainia edo aldizkariaren logotipoa webguneko babesleen orrian eta konferentziaren programan ikusgai izango dute. Zuen argitalpenaren kopiak etortzen direnei banatu ahalko dizkiezue. Ekimenean bertan, prentsa gela bat eta prentsa talde bat izango da datozen kazetarien beharrei aurre egiteko ardurarekin.

Babeste zehaztaperen eta baldintzak

1. Akademy KDE e.V. -ek antolatzen du - bestela Akademy Organizer bezala ere ezagutua.

2. Babeste inprimakia eta onespina KDE e.V.-ko buruek kudeatzen dute, Akademy antolatzen duen taldearekin elkarlanean. Babesleengandik Software Librearen ezarpenean eta hobetzean konpromisoa izatea espero da, eta Akademy-ren xedearen aldeko agertzea. Akademy Organizer-ek babeste eskaerak ukatzeko eskubidea dute.

3. Akademy Organizer-en onarpena jaso eta gero, babesleak adospen sinatua, babeste funtsak, logotipoaren irudia (Akademy Organizer-ek eskatzen duen erakoa) eta eskatzen diren beste zehaztaperenak (adib. babeslearen izen legala, marka erregistratuak etab.) bidali behar dizkio Akademy Organizer-i 30 egunen buruan faktura jasotzetik.

4. Babesle egiteko eskariak ez dira artatuko ordaindu ezean.

5. Babesleek ezingo dituzte babestutako gaien parteren bat inori berriz alokatu, esleitu edota banatu, ezta beste enpresa edo konpainia baten produktu edo zerbitzuen materiala banatu edo iragarri, Akademy Organizer-en idatzizko onarpenik gabe.

6. Akademy Organizer ez da erantzule babeslearen ondasunen kalte edo galerengatik sute, lapurreta, istripu, edo beste edozein arrazoiengatik gertatzekotan, zabarkeriagatik edo bestelakoengatik, edo ezinbesteengatik.

7. Seinaleak behar dituzten babeste paketeentzat, seinaleentzat dagoen lekua mugatua izan daiteke. Akademy Organizer-ek babesle bakoitzari jakinaraziko dio onartutako seinale kopuru eta handiera.

8. Babesleek pankartak, seinaleak eta sustapen materiala ekimena baino lehen eman beharko dituzte, antolatzaileak jakinarazitako data baino lehen. Material hauek ez ditu Akademy Organizer-ek emango. Babesleak seinaleen bilduma itzultzeko antolatzeko erantzukizuna du.

9. Xahutzea ekiditeko, Akademy Organizer-ek zenbait inprimatutako material eta iragarki bertsio elektronikoen ordeztu alda ditzake. Babesleak aurretiaz ohartaraziko dira erabiltzen den euskarriari hobekien moldatzen den materiala emateko.

10. Babesleak Akademy Organizer-i baimena ematen dio bere izena edota logotipoa ekimenaren sustapenean erabil dezan.

11. Babes funtsetatik geratzen dena KDE e.V.-ri dohaintza emango zaio.

12. Edozein arrazoi dela eta ekimena burutu ezin izatekotan, kontratu hau amaitutzat ematen da eta dohaintza itzulia izango da, dagoeneko egindako edozein zuzeneko kostu kenduta (adibidez, inprimatutako materiala edo materiala itzultzeko garraioen kostua).



Akademy 2012, Tallinn, Estonia

Antolatzaileak:



KDE e.V.

<http://ev.kde.org>



itsas

<http://itsas.ehu.es>



e-ghost

<http://www.e-ghost.deusto.es>

Akademy
Qt Contributor Summit
Akademy-es

Bilbao
2013ko uztailaren 11tik 19ra

Irudiak

Guggenheim museoa: flickr/mx2-foto

Alhóndiga: Christophe Durand

Gaztelugatxeko Doniene: flickr/MartaPhotography1

Pintxoak: Mikel Agirregabiria

Akademy 2012ko barruko argazkiak: Matthias Welwarsky

Akademy 2012ko talde argazkia: flickr/transloid